


hh udako hik hasi topaketak

2006 ko UDA



Donostian
Uztailak 4, 5 eta 6

Goizez
9:00 - 14:00
Arratsaldez
16:00 - 18:30

hik hasi udako topaketak

2006ko uztailak 4, 5 eta 6

hh
hik hasi

eman ta

Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea
**Hezkuntzaren Teoria
eta Historia Saila**

Sarrea

hik hasi proiektuak zazpigarren urtez antolatu ditu **udako topaketa pedagogikoak** EHUko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Sailarekin batera. Uztailaren 4, 5 eta 6an gaurkotasun handia duten gai ei buruzko ikastaroak egin ahal izango dira euskaraz.

Ikastaroak eskaintzeaz gain, hainbat arlotako irakasleak elkartzeko eta beren esperientziak trukatzeko topaleku izatea ere nahi dugu, bertan hausnarke-ta, asmo, ideia, proiektu eta berrikuntzak plazaratuko direlarik.

Aipatutako ikastaroak goizez egingo dira. Arratsaldeetan, bestalde, hitzaldiak, aurkezpenak eta eztabaida saioak izango dira aukeran.

Ordutegia

Goizeko ikastaroak: 9:00 - 14:00

Arratsaldeko saioak: 16:00 - 18:30

Lekua

Topaketak Donostiako Pedagogia Fakultatean, Informatika Fakultatean eta Ekintza ikastolan izango dira.

Kopuru mugatuko ikastaroak

Ikastaro hauetan aurrena izena ematen dutenek izango dute lehentasuna.

Heziketa sortzailea, zertarako?

Uztailak 4, 5 eta 6
9:00-14:00

Sormena eskubide bat da, eta premia larri bat, munduko arazo zerrenda ikusita. Pobreziari irtenbidea emateko, bake eta ekologia arazoei erantzuteko, ezinbestekoa da lehenbailehen soluzio berriak bilatzea, eta irudimena edukitzea arazo horiei heltzeko. Hezkuntza sistemak eta gizarteak herritarren talentua aprobetxatzen ez badu, arduragabekeria hutsa izango da. Gakoa, beraz, bakoitzaren singularitasuna garatzea da, eta ikasleak arazoei soluzioak bilatzeko hezteak. Horrek, okerrak ez zigortzea eskatzen du: ikasleak “zuzena” ez den erantzun bat ematen duenean, pentsa dezala “zer ikasi dut huts honekin? Zenbat ate zabaltzen dizkit? Norantz narama?”. Aldiz, gaurko hezkuntza triunfalista honekin, akatsak zigortzen dituen hezkuntza honekin, dena “arrakasta lortzea” den hezkuntza honekin, norantz goaz? Ziurtasunen heziketan gaude, eta ziurtasuna baino gauza ez zientifikoagorik ez dago. Gainera, datorren gizarte honetan dena hain aleatorioa izango denez, ezin dugu heziketa lege “aldagaitzetan” oinarritu: hipotesien zein alternatiba askoren gainean lan egiten ikasi beharko dugu.

Ikastaro praktikoa. Proposamen anitzen bidez, zera lortu nahi du

1. Parte hartzaileen sormena akuilatzea.
2. Guztia sortzeko baliabide dela esperimintatzea.
3. Etengabe eraldatzen den mundu honetan, eskolarako giltzarri diren hezkuntza planteamenduen inguruan hausnartzea.

Sormena: gertakari globala

- *Artea, zientzia, teknika, komunikazioa, antolamendua, eguneroko bizitza...*

Prozesu sortzailea, aldeko egoerak, “ezikastea”, okerrak, eraldaketak eta ebaluazio sortzailea.

Metodologia

Lan praktikoa egingo da, banaka eta taldeka. Oinarrizko teoria azalduko da, baita bibliografia eskaini ere.

* **Marga IÑIGUEZ.** Filosofoa, pedagogoa eta sormenean aditua.

* *Ikastaroa euskaraz eta gaztelaniaz izango da.*

Ahozketasuna eskolan lantzeko metodoa

Uztailak 4, 5 eta 6

9:00-14:00

Gaur egungo gizarte aurreratu-aberatsak aztertu dituzten ikerlariak aho batez aitortzen dute ahozketasunak (ahoz modu eraginkorrean komunikatzeko gaitasunak) gero eta garrantzi handiagoa duela, eta ez jardun esparru jakin batzuetan soilik, jardun esparru guztietan baizik.

Eskolan, ordea, eta salbuespenak salbu, apenas eskaintzen zaion arretarik kontu, itxura guztien arabera ezinbesteko, horri. **Ikasleak mundurako prestatzea baldin bada eskolaren zeregin nagusia, ezin esan, beraz, zuzen ari denik ahozketasunari dagokion alorrean.**

Idatzizkoan ere, zuzentasunaren ikuspegia lehenesten du ia beti eskolak, egokitasunaren kaltetan. Gauzak horrela, gaude hezkuntza sistema erro-errotik irauli beharra dagoela. Egin beharreko lanaren eredu izan nahi luke ikastaro honetan aurkeztu nahi dugun metodoak.

Gurea ez da bertsolaritza lantzeko metodoa, baina bat-bateko bertsoak hartzen ditugu abiapuntutzat. Alde horretatik, ezinbestekoa da bat-bateko bertsogintzaren oinarri nagusiak ezagutzea. Besteak beste, bertsolaritzaren alderdi erretorikoaz jabetzeko. Eskolak ikasleen ahozko komunikazio gaitasuna landu eta bermatu nahi badu, ezin dezake albora utzi gure gizartean ahoz komunikatzen arrakasta gehien lortu dutenen jardun eredugarria. Gainera, bertsoa neurri-neurriko diskurtsoa da, eta lan-ketarako ezinago egokia. Aurkeztuko dugun metodoa zortzi urteko lanaren emaitza da, eta birritan probatua dugu, aplikazio esperimentalen bidez, hainbat eskoletan.

Aplikazio esperimental horietan dagoeneko probatuak ditugun hainbat unitate didaktikoren azalpen praktikoa (aplikazioaren simulazioa) izango da ikastaroaren ardatz nagusia, unitateok behar bezala ulertzeko (eta berriak sortzeko) ezinbestekoak diren erreferentzia teorikoekin batera.

* **Andoni EGAÑA.** Bertsolaria.

* **Joxerra GARZIA.** EHUko irakaslea.

Begirada zabal bat islamari

Uztailak 4, 5 eta 6
9:00-14:00

Gaur egun, islamarekin zerikusia duten gertakizun asko iristen zaizkigu: beloa, islamdar fundamentalismoa deiturikoa, al Qaeda, Jihad... eta zerikusi hori hezkuntzarekin ere lotuta dago. Hala ere, islama kontatzen digutena baino askoz gehiago da. Pentsamendu korronte askotarikoak badaudela onartzeak eta, batez ere, islamaren irakurketa politikoagoa egiteak lagunduko digute gisa horretako gertaerak hobeto ulertzen.

Norentzat

Irakasle, profesional, guraso eta gaian interesa duen edonorentzat.

Helburuak

- Globalizazioaren eta uniformetasunaren aroan, hausnarketa berriei bide ematea.
- Islamaren baitako korronte politiko edo erreformista horren garapena aztertzea.
- Islamaren presentzia eta harremanak gaur egungo hezkuntza sisteman aztertzea.

Metodologia

Ikastaro teoriko-praktikoa.

EGITARAUA

Uztailak 4, asteartea

- Mila aurpegi al ditu islamak?
- Emakumea eta islama.

Uztailak 5, asteazkena

- Islama ulertzeko oinarriak.
- Islamismo politikoaren garapena eta gorakada.
- Islamaren hainbat aurpegi.

Uztailak 6, osteguna

- Islamdar komunitateak Mendebaldean.
- Komunikabideak islamaren aurrean.

* Miren CAMISÓN. Filosofian lizentziatua.

* Dabi LAZKANOITURBURU. Kazetaria.

* Txente REKONDO. Nazioarteko Ikerketarako Euskal Lantaldea-GAINeko kidea.

Historia irakaskuntzan

Curriculumaren inguruko hausnarketa

XX. mendean landu den curriculum ofizialetatik abiatuta, gaur Ingurunearen Ezaguera, Geografia eta Historia arloa Hegoaldean, eta, Histoire Iparraldean, Euskal Herriko Historiaren irakaskuntzarantzako ibilbidean lehen urratsei ekingo diegu. Horretarako, Historiako edukien azterketa zehatza egingo da, testu liburuetakoko edukien hustuketa sistematikoaren bidez.

Norentzat

Gaian sakontzeko gogoia duen edonorentzat, baina Lehen Hezkuntzako eta DBHko irakasleei zuzendua izango da, batez ere.

Helburuak

- Historia ikasteko erabiltzen diren oinarritzko edukiak ezagutzea.
- Testu liburuetan ikasten den curriculumaz aztertzea.
- Euskal Herriko historiaren irakaskuntzari buruzko hausnarketa egitea.

GAIAK

Uztailak 4, asteartea

- Euskal Herria, Identitatea eta Ingurunea. Ingurune desberdinak eta curriculumeko edukia. Irakurketa eta gaiaren inguruko eztabaida.

Uztailak 5, asteazkena

- Historia curriculumean. Curriculum ofizialak: Ingurunearen Ezaguera eta Historia Diziplina. Testu liburuetakoko eduki historiko zehatzak. Irakurketa eta gaiaren inguruko eztabaida.

Uztailak 6, osteguna

- Historia eta Euskal Herriko Historia. Egoeraren azterketa: Euskal Herriko Historiaren irakaskuntza curriculumean. Ikastaroan landutakoaren gaineko hausnarketa eta ondorioen zehaztapena.

Metodologia

Lehenik aurkezpen teorikoa egingo da eta ondoren material zehatzaren inguruko mintegi lana.

* Gurutze EZKURDIA. EHUko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saileko kidea.

Nola landu elkarbizitza

Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan

Uztailak 4, 5 eta 6

9:00-14:00

Elkarbizitzak, dagoeneko, garrantzi handia hartu du heziketan. XX. mendean zehar, giza mugimendu eta hainbat eragileren indarrez, emakumezkoen eta gizonezkoen bizimoduak aldaketa nabariak jasan izan ditu. Aldaketa horiek nabarmenki azaldu dira esparru konkretu batzuetan; esaterako, lan esparruan emakumezkoen parte-hartzea izugarri handitu da. Eraldaketa horiek ez dira arlo publikoan soilik gertatu, esparru pribatuan garrantzia duten eguneroko gertaeretan ere aise aurki daitezke.

Heziketa munduan, teoriarik behinik behin, aspaldidanik hartu nahi izan da **hezkidetzaren eta elkarbizitzaren** ibilbidea. Halere, **ez da erraza eguneroko gela-orduetan** behar bezain ondo islatzea **hori guztia**, eta curriculumaren eraginez, gizakien arteko emozio, sentimendu eta harremanak **bigarren mailako eduki mota bihurtzen** dira.

Ikastaro teoriko-praktikoa izango da.

Helburuak

- **Elkarbizitza**: ikasgelako batzarrak baloratzen eta parte hartzen ikastea, mintzatu ahal izateko hitza eskatuz eta bertan erabakitakoa betez...
- **Interkulturalitatea**: beste herri eta kulturen inguruko ezagutza orokorra lantzea...
- **Hezkidetzaren**: pertsonen arteko berdintasun esparru erreala eraikitzea, eta horrekin batera aniztasuna bultzatu eta baloratuko duen ikuspegiak sortzea...
- **Sexualitatea**: sexutze prozesuak neskak eta mutilak -pertsona sexuatuak- egiten dituela ohartzea...
- **Asertibitate/emozioak**: emozio eta sentimenduak bizitzako eragile direla ohartzea...
- **Gorputza**: gorputzaren garrantziaz ohartzea. Gorputza, bizitzeko modu bakarra...
- **Gatazkak gaitzitu**: elkarriketa lantzea, baloratzea eta goraipatzea, gogokoak diren akordioetara ailegatzeko bide bakarra baita...

Metodoaren oinarriak:

Helburu horiek modu aktibo eta parte-hartzaileen bitartez bideratuko dira, non ikasleak, irakasle eta taldekideen elkarrekintza dela medio, bere barne ezagupen teorikoa zein praktikoa eraikitzen joango diren.

* **Xabier ITURBE**. Psikologoa eta Lekeitioko eskolako zuzendaria.

* **Iñaki KARRERA**. EHUko Pedagogia Fakultateko irakaslea.

Familia eta eskola elkarlanean: Hezkidetza

Uztailak 4, 5 eta 6

9:00-14:00

Nori zuzendua

Irakasleei, gurasoei, psikopedagogoei, psikologoei...

Sarrera

Seme-alaba eskola adinean dagoen bitartean, haren hezkuntzaren erantzukizuna familiaren eta eskolaren artean partekatua da.

Bi sistemek, familia eta eskola, helburu berberak dituzte: haurren heziketa eta ongizatea ziurtatzea. Horregatik, beraien arteko elkarlana beharrezkoa da eta beraien funtzioek osagarriak izan beharko lukete.

Bestalde, familiak bere aldetik bakarrik ezingo luke haurra ongi hezi; eta ezta eskolak ere familiaren laguntzarik gabe.

Gurasoak, eta orokorrean haurren familia, haren hezkuntzan inplikatzek eragin positiboa du haurren garapenean. Inplikazio horren onurak ikaslearen ondorengo eremuetan islatzen dira:

- **Bere eskola errendimenduan:** bai eremu kognitiboetan (irakurketa, idazketa, kalkulua...) zein ez kognitiboetan (asistentzia, motibazioa, parte-hartzea...).

- **Bere ziurtasunean eta motibazioan:** seme-alabak independenteagoak dira, ekimen gehiago azaltzen dute eta autoestimu altuagoa dute.

- **Bere portaeran:** portaera arazoak gutxitzen dira eta beste arazo batzuk prebeni daitezke (drogen gehiegikeria, indarkeria...).

- **Bere jarrera positiboan** eskolarekiko, ikasketekiko eta eskolako jardueretikiko.

- **Bere trebetasunetan** (linguistikoak, sozialak...), bere nortasuna elikatuko dutenak.

Edukiak

1. Familia-eskola elkarlanaren inguruko garrantzia.
2. Familia-eskola inplikazio motak.
3. Elkarlana oztopa dezaketen elementuak.
4. Elkarlana sustatzeko teknikak eta estrategiak.
 - 4.1. Nola bultzatu elkarlana eskolatik?
 - 4.2. Eta familiatik?
5. Nondik hasi elkarlana eragiten?

Metodologia

Teoriaren azalpena, ariketak talde txikitan eta eztabaidak.

* **Edurne GALINDEZ.** Mondragon Unibertsitateko HUHEZI Fakultateko irakaslea.

Ikas-estiloen eta ikas-estrategien garrantzia hezkuntzan

Uztailak 4, 5 eta 6
9:00-14:00

Jakin badakigu ikasle bakoitza mundu bat dela eta irakasle beraren aurrean bakoitzak berea barneratzen duela. Eragile asko daude tartean. Horietako batzuk ikas-estiloak eta ikas-estrategiak ditugu. Denok desberdin ikasten dugula gauza jakina da, baina zergatik? Zertan? Nola? Zer egin dezake irakasleak?... Galdera zail horiei erantzun nahia du helburu ikastaro honek.

Norentzat

Edozein irakaslerentzat.

Helburuak

- Ikas-estiloak eta ikas-estrategiak kontzeptuak argitzea.
- Hezkuntzan duten garrantzia azaltzea.
- Ikas-estiloak eta ikas-estrategiak lantzeko argibideak ematea.
- Ariketa ereduak azaltzea.

Edukiak

1. Ikaskuntzaren misterioak

2. Ikas-estiloak:

- 2.1. Ikas-estiloen definizio eta sailkapenak.
- 2.2. Ikas-estiloen eta ikaskuntzaren arteko lotura.
- 2.3. Ikas-estiloak lantzeko ariketak.

3. Ikas-estrategiak:

- 3.1. Ikas-estrategien definizioa eta sailkapenak.
- 3.2. Ikas-estrategien eta ikaskuntzaren arteko lotura.
- 3.3. Ikas-estrategiak lantzeko ariketak.

4. Esku-hartze programa baten oinarriak.

Metodologia

Saiok teorikoak eta praktikoak izango dira. Hiru ekitaldi mota burutuko dira bereziki:

- Azalpen teorikoa.
- Ariketa praktikoak.
- Eztabaidak.

*Iñaki PIKABEA. Psikologoa. Pedagogoa. Pedagogian doktorea. EHUko irakaslea.

Dibortzioa eta Eskola

Banaketa kasuetan, jokatzeko irizpideak

Uztailak 4, 5 eta 6

9:00-14:00

Norentzat

Irakasle, hezitzaile eta gurasoentzat, zernahi ikasmaitan daudela ere (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH, Lanbide Heziketa, Batxilergoa).

Gaiaren garrantzia gaurko gizartean

Banaketak sortzen dituen aldaketak mingarriak dira helduentzat, eta are larriagoak seme-alabentzat.

Banaketak familiaren egitura aldatu egiten du, haurrak gurasoetako batekin gelditzen baitira elkarbizitzen. Gaizki eramandako banaketa baten ondorioak, askotan zera bihurtzen dira: delinkuentzia jokabideak, jokamolde desbideratuak, ikasteko zailtasuna, gehiegizko sentsibilitatea, edota senideekiko eta orokorrean bere inguru guztiarekiko harreman txarrak. Guraso-lerrokatzearen sindromea oso ohikoa da gaizki eramandako banaketan.

Eskolatik, profesionalek orientatu eta lagundu egin dezakete ikasleonek adierazpen ezkorrak prebentzen, gatazka horiei aurre egiteko baliabide egokiak hartuz gero.

Beste behin ere, eskolako profesionalei erronka handi bat aurkezten zaie, gelako funtzionamendu arruntean eragin zuzena duten familia egoera horiek direla medio.

Proposamen honek hordagoa botatzen die eskola erakundeei, beren ikasmaita guztietan haur zein nerabe hauen sozializazio prozesua lagun eta indar dezaten, betiere kontuan izanda ikasleok, gurasoen banaketa dela medio, familia haustearen esperientzia bizitzen ari direla edo bizi izan dutela.

Helburua

Jokatzeko irizpideak argi eta zehatz definitzea, eskolak esku-hartze positiboak egin ditzan banaketa gatazkatsuko egoeratan.

Gaiak

Eskola, banaketaren aurrean.

- a) Gatazka kudeatzeko, guztiok jakin beharreko oinarri-oinarrizko lege kontzeptuak.
- b) Ikastetxeak duen ardura gurasoekiko.

c) Irakasleak, tutoreak: banaketa gatazkatsuen kasu konkretuetan duten ardura eta inplikazioa. Gurasoekin eta ikasleekin nola jokatu.

Metodologia: teoriko-praktikoa

Aktiboa eta parte-hartzailea izango da. Gutxieneko alderdi teorikoak ere azalduko dira, eta tailer praktikoa egingo da.

Gaia diziplinartekotasuna zainduta landuko da, eta psikologiaren, zuzenbidearen eta gizartearen eremuak barne hartuko ditu.

- * **Izarne FERNÁNDEZ DE OSA.** Psikologoa.
- * **Nilda GORVEIN.** Abokatua eta psikoterapeuta.
- * **Pilar LEGARRA.** Psikologo klinikoa.
- * **Monica SARALEGI.** Psikopedagogoa.

** Ikastaroa euskaraz eta gaztelaniaz izango da.*

Harremanak gelan: gatazkak, tratu txarrak... esku hartzeko moduak

Irakasle eta ikasleen arteko harreman “onek” espazio berriak eraikitzen laguntzen dute, non elkarren arteko errespetua, onarpena eta elkar ulertzea bidera daitezkeen.

Norentzat

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBHko irakasle, aholkulari eta orientatzaileentzat.

Helburuak

- Gatazken prebentzioa lantzen duten programak ezagutzea.
- Tratu txarren zergatia eta ondorioak aztertzea.
- Tratu txarren aurrean esku hartzeko erabiltzen diren programak eta estrategiak lantzea.
- Esku-hartze zuzenetan irakasleak behar dituzten tresnak eta trebetasunak ezagutzea eta praktikatzeari.
- Bitartekaritzaren bidez kudea daitezkeen ikastetxeko gatazkak definitzea.
- Bitartekaritza prozesua ikasi eta praktikatzeari.

Metodologia

Bakoitzaren bizipenetatik abiatu eta adierazpen teorikoak kontuan hartuz, banakako hausnarketara iristen saiatuko gara. Metodologia interaktiboa eta parte hartzailea erabiliko dugu, eta bakoitzaren esperientzian oinarrituko da, lan kooperatiboa eta eraikitzailea bultzatuz.

Uztailak 4, asteartea

Ikastetxeen bizikidetzak lantzeko eredu orokor bat: prebentzioa

***Bullyinga* edo ikasleen arteko tratu txarrak**

- Zer da eta nola desberdindu daiteke beste biolentzia motetatik.
- Eskolan gertatzen diren tratu txar motak: fisikoa, psikologikoa.
- Protagonistak: biktima, erasotzailea eta begiraleen ezaugarriak.
- Tratu txarren ondorioak.

Uztailak 5, asteazkena

- Tratu txarrak jasateko aukera gehien duen ikaslearen profila.
- *Bullyinga* detektatzeko behaketa ereduak (galdeketak eta bakarkako elkarriketa).
- Zuzeneko esku-hartzea.
- *Bullyingaren* prebentziorako estrategiak.

Uztailak 6, osteguna

Bitartekaritza prozesua ikastetxean

- | | |
|---|--|
| - Bitartekaritza definizioa eta helburuak | - Bitartekaritzaren mugak |
| - Bitartekaritza ikastetxean | - Bitartekariaren profila |
| - Bitartekaritzaren printzipioak | - Bitartekaritzaren prozesua bere faseekin ezagutu |
| | - Bitartekaritzaren lehenengo fasearen praktika egin |

* **Amaia AGIRRE.** Formatzailea, bitartekaria eta GEUZeko partaidea (Gatazkak Eraldatzeko Unibertsitate Zentroa).

Adimen emozionala: sentimenduak osatzen

“Gauza bat lor al daiteke?” ez da galdera egokia.

Galdera egokia **“Nola lortuko dugu?”** da.

Norentzat

Gai hau interesatzen zaion ororentzat.

Helburuak

- Partaide bakoitzak bere emozioak hobeto ezagutzea, besteen emozioak hobeto ulertzeko.
- Aldaketak egiteko ahalmena lortzea, bizitzaren kalitatea hobetzeko gogoz.
- Helburu emozionalak aukeratzeko gauza izatea.
- Emozioak gaizki erabiltzeagatik sortutako hainbat arazori aurre egitea.
- Zer egin eta zer ez egin jakitea garapen emozionalean.
- Ezaugarriak eta errekursoak aztertzea.
- Harremanetako talde bat egitea, partaide bakoitzak bere kezkek eta beharrak azter ditzan.
- Ikastaroa bukatutakoan, eskolan gauzatzeko ekintza konkreituak prest izango ditugu.

Metodologia

- Oinarri teorikoak ezarriko dira, prozesu eta arazo emozionalak sistematikoki lantzeko.
- Lantzen ditugun ezaugarriak bakoitzaren bizitzan oinarritu.
- Ariketa praktikoak, ikastaro honen filosofia errealitatean finkaturik dagoelako.
- Partaideen arteko harremanetarako espazio bat lortu, denon ezaugarriak eta esperientziak aberasten dizkigulako.
- Proposamen praktikoak.
- Umorearen erabilpena.

Uztailak 4, asteartea. Eguneroko sentimenduak

- Oinarrizko emozioak.
- Tenkadura edo tentsioa.
- Plazera/gozamina.
- Oldarra.
- Haserrea: zer den eta nola landu.
- Elkartze-sena.
- Zoriontasuna.
- Elkarriketa.

Uztailak 5, asteazkena. Eragite sena edo boterea

- Boterea: ikuspegi sakona.
- Boterea gizartean, erlazioetan eta gelan.
- Botere tresnak.
- Boterea lortzeko erabiltzen diren hainbat modu.
- Adibideak.
- Elkarriketa.

Uztailak 6, osteguna. Proposamen praktikoak

- Proposamen konkreituak.
- Eztabaida.
- Nola gauzatu proposamen horiek.

*Ibon DE LA CRUZ. Psikologoa.

COACHING: Pertsona eta erakundeen garapena eta aldaketarako laguntza

Uztailak 4, 5 eta 6

9:00-14:00

Zer da *coachinga*

- Bai pertsoneri eta bai erakundeei, bere osotasunean, bide berri bat egiten laguntzeko, artea, teknika eta egitura batera biltzen dituen jardunbidea da.
- Adimen emozionalaren gaitasunak bereziki trebatzen ditu.
- Bakoitzaren nahiak argitzeko, erantzunkizunak bideratzeko eta gaitasunak deskubritzeko jardunbidea da.

Zertarako

- Bizitzari ikuspegi berri batetik begiratzen ikasteko eta harreman sendoak egiten laguntzeko modu eraginkorrean.
- Erronka berriei -geure osotasunean- modu egokian aurre egiten entrenatzeko.
- Ikasleak, lankideak eta norbere burua modu egokian tratatzen ikasteko.

Norentzat

- Pertsoneri zein erakundeei laguntzerakoan, ikuspegi berriak eta modu eraginkorrek ikasi nahi dituenarentzat.
- Erronka berriei aurre egiteko prestatu nahi duenarentzat.
- Lanean eta pertsonalki harremanak aberastu nahi dituenarentzat.
- Bizitza pertsonalari eta profesionalari zentzu bateratua eman nahi dionarentzat.

Nola

Galderen bidez norbere nahiak, erantzunkizunak eta gaitasunak deskubritzen lagunduz.

Coach orain!

5x5 sistema egituratu propioa.

Edukiak

1. Aurretikakoak: *coachingaren* historia eta tipologiak.
2. Coaching-aren oinarriak.
3. Funtsezko 5 trebetasun lortzeko praktikak.
4. Elkarriketaren 5 urratsak nola jarraitu ikasteko praktikak.
5. "Aldaketapuntua" eskolan eskaintzen dugun sistemaren marko orokorra.

* **Mirari BEREZIARTUA.** Aldaketapuntua Coaching Eskolako kidea.

* **Nerea REDONDO.** Aldaketapuntua Coaching Eskolako kidea.

Heriotza heziketan

Norentzat

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Batxilergo eta Lanbide Heziketako irakasleentzat eta eskoletako psikologoentzat. Magisteritzako, psikologiako edota psikopedagogiako irakasleentzat ere egokia izan daiteke.

Helburuak

Heriotzarekin lotuta dauden zenbait kontzeptu garrantzitsu aipatzeaz gain, hausnarketa pertsonalerauko aukera ere egongo da. Aztertuko diren esparruak:

- Doluaren prozesua: normala eta patologikoa
- Heriotza eta bizitza bide berdinean
- Garapen kognitiboa
- Erritoak
- Orientabide didaktikoak
- Taldearen hausnarketak

Orientabideak ezinbestekoak iruditzen zaizkigu hezitzaileen lanetan. Nola ulertu krisialdi mementoa? Zer landu? Heriotzarekiko pedagogia berria sortzeari helduko diogu.

Heriotzarekin lotuta dagoen maleta didaktikoa aurkeztuko da. Horrekin batera, Hik Hasiren "Heriotza heziketan" monografikoa aztertuko da eta familian sortzen diren banaketetan arreta gehiago jarri.

Uztailak 4, asteartea

9:00-14:00

Dolu protzesuaren eskema. Garapen kognitiboa. Nola ulertu prozesua eskola barrutik.

Uztailak 5, asteazkena

9:00-14:00

Saio praktikoa egingo dugu. Suerta daitezken oztupoak dolu prozesuan. Irakasleen beldurrak eta inpotentzia gai honen aurrean.

Uztailak 6, osteguna

9:00-14:00

Orientabideak edo pautak familientzako:

- Hasierako elkarrizketak
- Mitoak eta sinesmen faltsuak
- Taldearen laguntza
- Zer landu aurretik, mementoan eta gerora begira
- Banaketak: landu beharreko gaur egungo galera nabarmenetako bat.

Kasu praktikoak aztertuko ditugu eta materiala ezagutuko dugu.

* Patxi IZAGIRRE. Psikologo eta psikoterapeuta.

* *KOPURU MUGATUA* *

Ordenagailu gelara? Zertara?

13

IKTen erabilpena hezkuntzan: proposamen praktikoak Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. ziklorako

Uztailak 4, 5 eta 6
9:00-14:00

Laburpena

Teknologia Berriek hezkuntzan integraturik egon beharko luketela aipatzen da maiz gai honetaz mintzatzen diren artikulu eta liburuetan. Oso gutxitan topa daitezke, ordea, hori gauzatzeko jarduera zehatzak eta gure ikastetxetako errealitatearekin lotuak. Irakasleok askotan software kurrikularraren erosotasunean mantentzen gara (CD-ROMak, Klik...) eta ez gara ausartzen horiez gain beste programa edo, hobe esanda, beste erabilpen batzuk planteatzen. Ikastaro honek aukera errazak erakutsi nahi dizkio irakasleari, Word, Paint eta beste hainbat programa arruntek dituzten posibilitate anitzak aurkeztuz. Bestalde, programak baino, horiekin egin daitezkeen jarduerak izango dira protagonista, horien etekin didaktikoarekin batera, noski. Bukatzeko, jarduera hauek behar bezala burutzeko antolaketa irizpideak eta gomendioak emango dira, sor daitezkeen arazoak aurreikusi eta saihesteko asmoz.

Norentzat

Lehen Hezkuntzako irakasleentzat batik bat, eta orokorrean, informatikaren erabilpen praktikoak bultzatzeko ideiak jaso nahi dituenarentzat: PTak, informatika tailerretako monitoreak... edo bere IKT konpetentziak igo nahi dituenarentzat.

Helburuak

1. Informatikaren erabilpenerako proposamen praktiko eta bideragarriak aztertzea, alderdi sortzailea bultzatuz eta ikuspegi konstruktibistaren ildo jarraituz.
2. Hainbat programek (Word, Paint, Tuxpaint, Picasa...) eskaintzen dituzten aukerak (eta trukuak) ezagutzea, ikasle eta irakasleen eguneroko jarduera didaktikoetan txertatzeko.
3. Irakasleen "pentsamendu digitala" garatzea, hezkuntzan ordenagailua tresna arrunta bihurtzeko.
4. Teknologia Berrien inguruko hausnarketa egitea eztabaida eta ideia trukaketaren bitartez.

* **Fultxo CRESPO.** Bianako Erentzun ikastolako irakaslea.

* *KOPURU MUGATUA* *

Publisher: idazketa tailerretarako baliabidea

14

Uztailak 4, 5 eta 6
9:00-14:00

Norentzat

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza edota Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleentzat. Ez da beharrezkoa informatikari buruzko ezagutza berezirik izatea. Edonorentzat eramangarria.

Zer

Liburuxka, txartel, pankarta, aldizkari, egunkari... horrelako ugari egiten dira ikasturtero eskola guztietan, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan zein DBHn. Duela urte batzuk, eta gaur egun ere noizbehinka, eskuz egin ohi ditugu horrelako proiektuak Baina, gero eta gehiago erabiltzen dugu ordenagailua era horretako proiektuak garatzeko orduan.

Bide horretan jarraitu nahi dutenentzat oso aprobetxagarri izango da honako ikastaro hau. Bertan Microsoft-eko Publisher programa aurkeztuko dugu. Programa horrek eskaintzen dituen baliabide erabilgarriak aurkituko ditu ikastaro honen jasotzaileak. Eta garrantzitsuenak: ondoren, erraz aplikatu ahal izango da norberaren ikasleekin. Gainera, arestian aipatutako proiektu horiez gain, programa honek web gune sinpleak sortzeko ematen dituen aukerez ere jabetuko gara.

Metodologia

Ikastaro honetan erabiliko dugun metodologia *learning by doing* izango da, hau da, ikasleak egiten ikasiko du. Proiektu batzuk burutuko ditugu, sinpleenetatik konplexuenera, guztiak erabat funtzionalak, eta horiek egin bitartean jabetuko gara programaren erabileraz. Honako hauek izango dira aurrera eramango ditugun proiektuak:

- Kartelak eta pankartak.
- Liburuxkak.
- Aldizkari edo egunkariak.
- Web guneak.

* Mikel FERNANDEZ. Irakaslea eta informatikan aditua.

* KOPURU MUGATUA*

Photoshop

15

Uztailak 4, 5 eta 6
9:00-14:00

Irudiak hobetzeko eta egokitzeko programa osatuenetako da.

Teknologia Berrien erabilerak hainbat tresna digitalen ezagutza eta menperatze maila egoki bat exijitzeaz gain, software (programa) egoki bat ezagutzera ere behartzen gaitu.

Horretarako aukeratutako programa Photoshop izango da.

Irudia tratatzeko programa profesional baten aurrean egon arren, era erraz eta azkarrean soluzio izugarriak ematen dizkigu ikastetxeko eguneroko lanetarako.

Ikastaro honetan Photoshopek dituen oinarrizko aukerak ikusi eta landuko ditugu.

Edukiak

- Sarrera: lan tokiak ezagutu
 - Irudiaren erresoluzioa eta neurria (inprimatu, weberako edo aurkezpen baterako)
 - Esploratzailea
 - Paleta nagusienak ezagutu
 - “Erremintak” ezagutu:
 - . Pintzela, “makil magikoa”, “klonatzeko tanpoia”, selekzio erak, lazoak,...
 - Artxibo motak: psd, jpg, gif, bmp (ezaugarriak)
 - Kapak: erabilera eta aukerak
 - Testua landu
 - Kolorearen tratamendua: distira, kontrastea, kurbak, zuzenketak...
 - Filtroen erabilera
 - “Akzioak”
-
- ### Ariketa praktikoak
- Eskaneatu (erresoluzio egokiak)
 - Irudi baten pisua aldatu (weberako egokitu)
 - Irudi bati fondoa kendu
-
- Irudi desberdinekin muntaiak egin
 - Web galeriak egin
 - Argazki zahar bat berritu
 - Begi gorriak zuzendu
 - Kartelak eta iragarkiak egin
 - Argazki bat hobetu: kolorea, argitasuna, enfokea...
 - Pertsona baten azalaren itxura gaztetu
 - Txuri beltzeko irudi bat koloreztatu
 - Argazki baten tonu desberdinak lortu: sepia...
 - Tutorial desberdinak ezagutu:
 - . Estilo desberdineko testua sortu: suaren itxura duten letrak, urrezkoak, kristalezkoak, izotza itxurakoak...
 - . Irudiak deformatu
 - . Pergaminoak egin
 - . Testura desberdinak sortu
 - . Eztanda bat sortu
 - . Tximista bat sortu
 - Photoshopi buruz interneten dauden hainbat helbide ezagutu (trukoak, efektuak, tutorialak, foroak...)

* Xabier LERTXUNDI. Irakaslea.

* KOPURU MUGATUA*

Helburua

Ikastaro honen helburua, irakasleei Software libreari buruzko informazioa ematea eta zenbat aplikazio dagoen aurkeztea da, bai irakaskuntzan erabil daitekeena, bai eta eguneroko erabilerarako egokia dena ere. Edozein lanetarako soluzio libreak daudela ikusiko dugu, eta ordaindutakoak bezain onak edo hobeak direla ere erakutsiko dugu. Bestalde, hurrei hainbat gai irakasteko egoiak izan daitezkeen aplikazioak ere erakutsi nahi ditugu, horretarako bereziki garatu den Edubuntu banaketa aurkeztuz. Gainera, euskaraz lan egiten duen sistema dela ere azpimarratu nahi dugu, aplikazio asko eta asko euskaraz baitaude. Oinarrizko aplikazioak euskaratuta daude, bereziak diren asko ere bai, eta euskaratu gabekoak itzultzen edonork lagun dezake.

Landuko diren gaiak

1.- Sarrera: zer da software libre, aplikazioen kalitatea, birusik gabeko mundu berria.

2.- GNU/Linux

- Sistema eragilea eta zeregin guztietarako aplikazioak
 - Banaketak (Debian, Ubuntu, Mandriva...)
 - Ubunturen (eta EDUBUNTUren) instalazioa:
 - partizioak
 - fitxategi sistema
 - hizkuntzak
 - oinarrizko aplikazioak
 - hardwarearen autodetekzioa: sarea, pendriveak, inprimagailuak
 - Sistemaren egokitzapena:
 - aplikazio berrien instalaziorako errepositorioak
 - eguneraketak
 - segurtasun updateak
- 3.- Irakaskuntzarako oinarrizko aplikazioak
- Internet:
 - nabigazioa: Firefox
 - posta eta agenda: evolution
 - Offimatika aplikazioa: OpenOffice
 - testuak
 - kalkulu orriak
 - aurkezpenak
 - datu baseak
 - Musika: rythmbox, xmms
 - Irudiak: The Gimp
 - CD/DVDak grabatzeko: nautilus
 - CD/DVDak ikusteko totem, mplayer...
 - Haurrentzat bereziki egindako aplikazioak:
 - matematika, kimika, idazten ikasteko, orduak...
 - Bestelakoak:
 - web orrien diseinurako aplikazioak: Nvu, mozilla...
 - goi mailako testu edizioa; latex, lyx, beamer
 - kartelak egiteko aplikazioak: scribus
 - matematikako aplikazioak: Scilab, mapple...
 - estatistika: R
 - ikastaroko ikasleen behar konkretuetarako aplikazioak

* Elena LAZKANO. EHUko Informatika Fakultateko irakaslea.

* Aitor SOROA. EHUko Informatika Fakultateko irakaslea.

* KOPURU MUGATUA*

Neobook sakontzen

17

Uztailak 4, 5 eta 6

9:00-14:00

Neobook programaren oinarrizko ezagutza izanda, ikastaro honetan programari zukua ateratzeko aukera edukiko duzue.

Helburua

Bertsio berria ezagutzea eta programak ematen dituen aukerak lantzea, ariketa guztiak teoriatik praktikara eramanez.

Uztailak 4, asteartea

Programaren 5. bertsioa ikusiko dugu, eta honen ezaugarriak nagusienak landuko dira. Besteak beste, honako berrikuntza hauek:

“Drag and drop” funtzioa (objektuak leku batetik leku jakin batera eramatea), irudiei koloreak emateko tresna, objektuei mugimendua emateko aukerak, pantailan zehar neurria aldatzeko euskailua, objektuen berezitasunak, puzzleak, “flash” artxioben tratamendua, internet sarean kokatzeko loturak, html artxioboak bideratzeko tresnak, menu emerjenteak...

Uztailak 5, astezkena

Neobooken errainetan sartuko gara. Hemen honako hauek ikusiko dira:

aldagaiak, baldintzak, kateak, testuen tratamendua, azpi-errutinak, multimediararen mundua, potentziometroaren erabilpena, trantsizioak, matematikari dagozkion eragiketa guztiak, objektuen bilketak, “kar” artxioboak sortzeko bideak eta abar.

Uztailak 6, osteguna

Bukatzeko, eta postre gisa, armaturik dauden “plugins”-ak eta 300 bat “pub” aztertuko ditugu, tailer eran antolatuta. Haien artean trantsizioak, jokoak, baliabideak eta abar.

Oso garrantzitsua izan daiteke lehenengo ikastarotik hona sortu ditugun ekarpenak lankideei erakustea. Horrela, tresna honekiko ezagutzak hobeto finkatuko ditugu eta amaitzeko, denbora baldin badugu, Neobooken zerkusia duten beste programa batzuk ukituko ditugu.

Baldintza

Neobook programaren oinarrizko ezagutza izatea.

* Jose Manuel BELTRAN. Gasteizko Antonio Lopez de Guereñu IPko irakaslea.

** KOPURU MUGATUA **

Blogak irakaskuntzan

18

Norentzat

Edozein mailatako irakasleentzat.

Helburuak eta ezaugarriak

Aspaldi honetan web 2.0 izenpean interneten gertatzen ari diren aldaketan berri jasotzen ari gara hedabideetan. Kontzeptu honen definizioa ikuspegi askotatik enfoka daitekeen arren, ikastaro honetan irakaskuntzari begira web 2.0 delakoak leharkearen inguruko azterketa egingo dugu, mugimendu berri honen buruan blogak kokatuko genituzkeelarik.

Blogak sortu, erabili, kudeatu eta edukiaz hornitzen ikastea litzateke ikastaro honen helburuetako bat; bestea, eta agian garrantzitsuena, gure eguneroko jardunean tresna horien aplikazio desberdinak aztertu eta gogoeta egitea.

Uztailak 4, asteartea

- Zer da web 2.0. Zer eragin du mugimendu berri honek irakaskuntzan?

- Edukien sindikazioa. RSS jarioak eta Bloglines

- Blog bilatzaileak. Technorati.

- Folksonomiak. Del.icio.us

- Blogak. Zer dira.

- Blogak sortzeko aplikazio desberdinak azaldu.

- Blog bat sortu eta kudeatu.

- Artikuluak argitaratu.

- **Etiketak:** informazio esanguratsua eskaini eta jaso.

* Etiketak gehitzeko sistemak aztertu

- **HTML fitxategiak:** bestelako edukiak.

Uztailak 5, astezkena

- Blogak multimedia gisa (I)

- Testua: hizkuntza idatziaren lanketa. Adibideak.

- Irudi eta argazkiak: sormena, komunikazio ezberbala... Adibideak.

* Argazkiak kudeatzeko sistemak. Flickr

- Audioak: ahozkotasanaren lanketa, hizkuntza ezberdinen lanketa... Adibideak.

* Podcast-ak. Odeo.

- Bideoak: sormena, gorputz adierazpena. Adibideak.

* Bideoak kudeatzeko sistemak. YouTube.

Uztailak 6, osteguna

- Blogak tresna didaktiko gisa.

Ezaugarriak.

- Tresna kolaboratiboak: Writely, vview eta Wikiak.

- Gure ikastolako esperientziaren berri eman.

- Norberak leharkeena.

Beharrezko materiala eta baldintzak

- Korreo kontu erabilgarri bat edukitzea beharrezkoa da.

* **Jokin LACALLE.** Jakintza ikastolako IKT dinamizatzailea. Batxilergoko Fisikako irakaslea.

* **Mikel ETXARRI.** Jakintza ikastolako webmasterra. LH eta DBHko irakaslea.

* **KOPURU MUGATUA***

Bideoa: editatzen ikasteko, pinnacle studio 9 programaren bidez

Uztailak 4, 5 eta 6

9:00-14:00

Studio 9 programa oso erraza da ulertzeko eta erabiltzeko, eta bideoz zein DVDz proiektuak erai-ritzeko ideala da. Programa honekin lan egiteak zera esan nahi du: lehenik bideoak, argazkiak, audioa, animazioak eta abar lortu beharko ditugula, gero bigarren fase batera pasa eta pixkanaka elementu horiei guztiei forma emateko, edizioaren bidez. Horietako elementu batzuei ukitu berezia eman beharko diegu (formatuz aldatuz, filtroen bidez, apainketak eta abar). Azkenik, elementu guztiak nahasi ditugunean, nahi dugun formatura aterako dugu, izan zinta batera, DVDra edota aurkezpen multimedia batean txertatzeko artxibo batera.

Landuko dena

Proiektuak sortzea

1. Proiektu berri bat sortu
2. Osagaiak
3. Antolamendua
4. Gorde

Bideoaren kaptura

1. Kaptura txartelak
2. Konpresioa, hardware eta software bidez
3. Kapturatzeko iturria determinatzea
4. Kapturatutako bideoa gorde

Bideo kanalak

1. Bideoaren stream-a sartzea kanaletan
2. Irudi finkoak sartzea

Bideoaren edizioa eta muntaia

1. Edizio erreminten erabilera
2. Zatitzea
3. Trantsizioak
4. Lausotzeak

Bideo filtroak aplikatzea

Soinu kanalak

Tituluak sortzea

1. Titularrak sortu
2. Titularren ezaugarriak

Proiektuak esportatzea

1. Bideoaren formatua hautatzea
2. Fitxategira, kanpoko gailu batera edo DVDra esportatzea.

* **Pelaio EIZAGIRRE DE GARATE.** PADEko (Heziketarako Ikus-entzunezko Digitalen Produkzioak) errealizadorea eta gerentea. Esperientziaduna ikus-entzunezkoak eta telebista saioak egiten.

* **KOPURU MUGATUA** *

“Literaturatik zinemara: Lolita mitoaren bilakaera patriarkala”

Uztailak 4, 5 eta 6

9:00-14:00

Nor da Lolita? Ume mukizu, neskato erakargarri, neurri txikiko femme fatale bat? Hori guztia eta gehiago. Lolita mito moderno bat da. Bere jaiotze data: 1955. Bere aita: Vladimir Nabokov idazle errusiar-amerikarra.

1955ean jaio bada, zahartzen hasia zaigu Lolita? Inolaz ere ez. Lolita beti da gazte eta erakargarri (gizarte-mitoen abantaila). Beraz, ez da aldatu berrogeita hamar urte hauetan? Aldatu da, bai. Asko gainera. Masa-kulturak bere egin duenetik, izugarritzko transformazioak jasan ditu neskatxak (gizarte-mitoen desabantaila).

Lolita ez da gaur adin ertaineko gizon batek bahitu eta bortxatutako neska. Lolita gaur egun neska erakargarri bezain perbertsoa dugu, gizonaren patua betiko okertzeko boterearen jabe dena, gainera.

Birritan egokitu da Lolita zinemara. Honek, noski, areagotu egin du bere eraldaketa. Adaptazioak beti moldaketa dakarrela onartuz ere, zergatik ageri zaigu bi bertsio hauetan Lolita maltzur bat eta ez eleberriko neskato babesgabea? Lolitak zineman jasan duen transformazioa naturala ote? Ala ideologia zehatz baten emaitza?

Lolita mitoaz mintzatuko gara, beraz, liburuaren bi zine-adaptazioak ikusiz (*Lolita*, Stanley Kubrick, 1962 eta *Lolita*, Adrian Lyne, 1997) eta Nabokoven maisulanaren hainbat pasarte irakurritz. Nola aldatu da Lolitaren ideia eta zergatik? izango da galdera nagusia.

Era berean, ez dugu ahaztu Nabokov-en garai berean eta antzeko gaiarekin euskaraz idatzi zen eleberria: *Haur besoetakoa*, Jon Mirandek 1959an sortua eta hamaika urte pasa arte argitaratu ezin izan zena, zentsura eta aurreiritziak zirela-eta.

Honen harira, gai orokorragoen hausnarketa bultzatuko da. Zer gertatzen da pertsonaia literarioekin zinemara pasatzen direnean? Nolako tratamendua jasaten dute gaur egun pertsonaia femeninoek herri-kulturaren? Zergatik dago hain zabalduta emakume-errudun eta gizon-biktimaren ideia? Hedabideak, eta bereziki zinema, mito sortzaile dira ala gizarte fantasien isla hutsa?

* **Katixa AGIRRE**. EHuko Publizitate irakaslea.

* **Xabier MENDIGUREN ELIZEGI**. Idazlea.

Idazketaren didaktikarantz

Uztailak 4, 5 eta 6
9:00-14:00

Posible al da konstruktibismoa eta kaligrafia koadernoak adiskidetzeari?

Idazketaren arloan Emilia Ferreireoren ikerketa eta hausnarketek eragin handia izan dute Euskal Herrian. Haren teoriaren puntu garrantzitsu batzuk aztertuko ditugu eta beste ikuspuntu batzuekin osatu. 30 galdera-erantzun aurkeztuko dira idazkera hobeto ulertu asmoz eta Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzaraino urtez urteko idazketa plangintza bat planteatuko da. Ondoren, berritutako disgrafia test bat ikusiko dugu eta ikerketa proposamen bat azalduko da.

Norentzat

Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasle, PT, psikologo, pedagogo eta abarrentzat.

Helburuak

- Emilia Ferreireok Piageten konstruktibismotik egiten duen irakurketa ezagutzea.
- Metodo tradizionalak diotena barneratzea.
- Idazketa beste diziplina batzuen bidez hobeto ulertzea.
- Idazketa urtez urte lantzeko proposamen zehatz bat eskuratzea.
- Euskarazko disgrafiaren tresna berri bat ezagutzea.
- Ikerketa batetan parte hartzeko gonbidapena.

Egitaraua

I. Kultura idatziaren garapena XV. mendetik honantz, zertzelada batzuk:

- 1.1. Irakurketa-idazketa metodoen ikuspuntutik.
- 1.2. Emilia Ferreireoren hausnarketak.
- 1.3. Adiskidetzearen proposamena.

II. 30 galdera-erantzun idazketaren ergonomia eta garapena kontuan hartuta.

III. Idazketaren didaktika: Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako 5. maila arte, idazketan urte bakoitzean lantzea komeniko lirajtekeen helburuak (orri motak, norabidea, neurriak, loturak...).

IV. Idazkera "txarren" didaktika: Ajuriaguerraren disgrafia eskala berrituta, hobetuta, zehaztuta, euskaraz.

V. 2006. eta 2007. urteko ikasturtean ikerketa bat martxan jartzeko proposamena.

Metodologia teoriko-praktikoa izango da.

***Irene IBARRA.** EHUko Psikologia Fakultateko irakaslea. Grafologoa eta UEUko kidea.

Ipuinak irakurtzen eta kontatzen

Uztailak 4, 5 eta 6
9:00-14:00

Haurrei ipuinak kontatzen eta irakurtzen trebatzeko ikastaroa: oinarriko koordinatuak.

Norentzat

Bereziki, Haur Hezkuntzan dabilen hezitzaileentzat.
 Baina, baita Lehen Hezkuntzakoentzat, edota ipuinak kontatzeko interesa dutenentzat.

Helburuak

- Ipuinak kontatzeko eta irakurtzeko konfiantza geureganatzea.
- Ahozko komunikazioa indartzea.
- Haurrekiko harreman afektiboa zein emozionala bideratzea.
- Harreman literarioa zein sinbolikoa garatzea.
- Elkar entzuteko espazioa lantzea...

Egitaraua

- 1.- Kontakeraren garrantzia gaur egun.
- 2.- Kontatzeko hiru modu aztertu:
 - Irakurketa, ahotsa gora.
 - Kontaketa, irudiez baliatuta.
 - Kontaketa, irudiez baliatu gabe.
- 3.- Ipuinak kontatzeko baliabideak:
 - Kontatzeko gunea: espazioa eta denbora.
 - Gorputza: ahotsa, keinuak, imintzioak, begirada...
 - Ahozko hizkuntzaren estilistika.
 - Girogarriak: erritoak.
 - Isiltasunaren erritmoa.
- 4.- Ipuinak asmatzeko estrategiak.
- 5.- Kontalariaren jarrera.
- 6.- Kontakizunak aukeratzeko irizpideak.
- 7.- Kontakizunen sailkapena.

Beharrezkoa

- Ipuinak kontatzeko eta irakurtzeko beharrezkoa da ipuinen bat ekartzea (ipaina izan dadila, ahal bada, norberak erabili izandakoa).
- Arropa eroso.

***Pello AÑORGA**. Ipuin kontalaria, idazlea eta Mondragon Unibertsitateko HUHEZI Fakultateko irakaslea.

Disgrafiaren diagnostikoa eta tratamendua

23

Uztailak 4, 5 eta 6
9:00-14:00

Ikasleak irakurtzeko edo idazteko dituen arazoek eragin nabarmena dute haren eskolako errendimenduan. Izan ere, horrelako arazoak dituzten haurrek ez dute sarritan bere adimen mailari dagokion emaitzarik lortzen. Gure eskoletan garrantzi handia ematen zaio ongi idazten jakiteari, baina idazketa arazoak dituzten hauren diagnostikoa eta tratamendua ez dira behar den moduan lantzen.

Norentzat

Irakasleentzat, psikopedagogoentzat eta gurasoentzat.

Helburuak

Disgrafia motak bereizten, disgrafien diagnostikoa egiten eta disgrafia motak tratatzen ikastea.

Landuko diren gaiak

1. Zati teorikoan gai hauek landuko dira:

- Idazketaren faseak: informazioa bildu eta ideiak antolatu, mezua adierazteko egitura sintaktikoa eraiki, bide fonologikotik edo bide ortografikotik grafemak eskuratu eta alografoari dagokion mugimenduen patroia berreskuratu.

- Disgrafia motak:

* Disgrafia eskuratuak:

- Afasia dinamiko zentrala.

- Agramatismoa.

- Disgrafia zentralak: fonologikoak, lexikoak, sakonak, semantikoak.

- Disgrafia periferikoak.

* Disgrafia ebolutiboak:

- Disgrafiko fonologikoak.

- Disgrafia ortografikoak.

- Disgrafiaren diagnostikoa: planifikazio prozesuaren, egitura sintaktikoaren eraikuntzaren, lexi-koaren berreskurapenaren eta mugimendu prozesuen diagnostikoa.

- Tratamendua: planifikazioaren, sintaxiaren, lexikoaren berreskurapenaren eta mugimendu prozesuen mailan eskuhartzeko ariketak.

2. Zati praktikoan, alde batetik, hainbat idazlan disgrafikoren azterketa egingo da; beste aldetik, hainbat idazketa disgrafiko zuzentzeko prozedurak agertuko dira.

Metodologia

- Uztailaren 4an eta 5ean disgrafia motak eta diagnostiko sistemak aztertuko dira. Atsedenaldira arte **teoria**, eta atsedenalditik amaierara arte, **praktika**.

- Uztailaren 6an disgrafia tratatzeko programaren berri emango da.

***Mikel HARANBURU**. EHUKo Psikologia Fakultateko irakaslea.

Txillida: arte eta heziketa

24

Eduardo Txillida euskal artista unibertsalaren giza dimentsioa abiapuntutzat hartuko dugu, bere pertsonalitatearen eta balioen isla aztertzeko haren lanetan. Eduardo Txillidaren obraren alde hezitzaileak nabarmenduko ditugu eta Txillida-Leku Museoaren lan pedagogikoan sakonduko dugu, irakasleei beraien programetan txertatzeko baliabideak emanez.

Norentzat

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBHko irakasleentzat.

Helburuak

- Eduardo Txillidari hurbiltzea, bai bere giza dimentsioan bai bere dimentsio artistikoan.
- Txillida-Leku museoaren lan pedagogikoa ezagutzea.
- Txillidaren eskulturekin irakasleei baliabideak eskura jartzea, oro har, arte garaikidearekin lan egiteko.

Uztailak 4, asteartea

- Ikastaroaren aurkezpena.
- Eduardo Txillida: pertsonari hurbiltzea: bizitza eta pentsamendua.
- Eduardo Txillidaren obrara sarrera: gaiak, materialak eta proiektu publikoak.
- Haizearen Orrazia eskultura eta Tindaya proiektuaren azterketa.

Uztailak 5, asteazkena

- Zabalaga baserria eta Txillida-Leku: berezko espazio eskultorikoa.
- Artearen bidez hezi: heziketa Txillida-Leku Museoan: helburuak, oinarri teorikoak, metodologia.
- Eskola museora: hainbat egitarauaren aurkezpena.
- "Begiratzuz... ulertzen dut" programa: bisita aurretiko prestaketa (1. fasea)

Uztaiak 6, osteguna

- "Begiratzuz ulertzen dut" programa: bisita museora eta bisita ondoko hausnarketa (2. eta 3. faseak).
- Eskulturekin elkarrizketan: artelanaren aurretiko metodologia.
- Ondorioak eta amaiera.

Metodologia

Ikastaroak azalpen teorikoak konbinatuko ditu talde txikietan egindako hausnarketa eta eztaba-
da jardurekin. Horretarako, artistaren testuak eta haren obraren irudiak erabiliko dira.
"Begiratzuz... ulertzen dut" museoaren egitarau hezitzailea garatuko da praktikoki. Azkenik,
Txillida-Leku museoa bisitatuko da, eskulturekin zuzenean lan egiteko.

* **Amaia FERNÁNDEZ.** Txillida-Leku Museoko Heziketa Arloaren arduraduna.

Antzerki KLOWNa

Klown-a desinhibitzeko, komunikatzeko, emozioak adierazteko eta jolasteko teknika izugarria da; era berean, antzerkia eskolan planteatzen denean, pertsonaiak sortzen laguntzeko, edo testuak modu natural eta dibertigarrian lantzeko ere oso egokia da.

Norentzat

LHko, DBHko eta Batxilergoko irakasleentzat, aisialdiko begiraleentzat, eta kultura, espresioa eta hezkuntzarekin lotutako profesionalentzat.

Helburua

Denok daukagu gure klown-a eta joko eta ariketen bidez hori aurkituko dugu. Teknika ezagutu, pertsonaiak sortu eta testuekin jolastuko dugu, gero bakoitzak bere ikasleekin lantzeko.

Metodologia

Ikastaro praktikoa izango da. Bakoitzak sudur bat gomarekin, txanoa eta mozorrotzeko arropa koloretsua ekarriko du.

Uztailak 4, asteartea

9:00-14:00

- Beroketa ariketak. Jokoak.
- Sudurrarekin ariketak. Sarrerak. Ikusleekiko kontaktua.
- Inprobisazioak. Banaka, binaka eta taldean.

Uztailak 5, asteazkena

9:00-14:00

- Beroketa ariketak. Jokoak.
- Binaka. Zirikatzailea, anaia-zaharra/gaztea.
- Testuen lanketa.

Uztailak 6, osteguna

9:00-14:00

- Beroketa ariketak. Jokoak.
- Inprobisazioetan oinarritutako antzezlan txikia.
- Testuetan oinarritutako antzezlan txikia.
- Bidaia miresgarria.

* **Joserra FACHADO.** Aktorea, irakaslea. Zurriola Antzerki Eskolako koordinatzailea. 8 urtetan LHko ikasle eta gazteekin "klown" a lantzen aritua.

* **KOPURU MUGATUA** *

Antzerkia

Uztailak 4, 5 eta 6

9:00-14:00

Norentzat

LHko, DBHko eta Batxilergoko irakasleentzat; aisialdiko begiraleentzat eta kultura, espresioa eta hezkuntzarekin lotutako profesionalentzat.

Pertsonaien sormena

Antzerkira hurbiltzeko lehen pausoak emango ditugu pertsonaien sormena ardatz hartuz. Sormen horretarako, bide desberdinetatik abiatuko gara. Alde batetik, animalien behaketan oinarrituz (ibiltzeko duten era, egiten dituzten soinuak) eta beste aldetik, naturako elementuak erabiliaz (sua, lurra, haizea eta ura).

Helburua

Pertsonaien sormenetik abiatuz antzerkiko oinarritzko teknikak ikastea. Ikasleekin erabiltzeko joko eta teknika askotarikoak ezagutzea.

Metodologia

Ikastaroa guztiz **praktikoa** izango da. Partaide bakoitzak arropa erosoak ekarri beharko du. Beroketa nahiz teknikak ariketa jolasen bitartez landuko dira, edozein adineko ikasleekin erabiltzen diren jokoak.

Beroketako atalean, gorputza esnatzeko hainbat ariketa egingo ditugu; espazioarekin eta lagunekin harremanetan jartzeko jokoak; pilotarekin, espazioan ibiltzen, imitazioak, ahotsaren lanketa eta abar.

Teknikako atalean, berriz, animalietatik pertsonaietara iristeko ariketak, emozioen ariketak (barrea, beldurra, naturako elementuak eta antzezteko behar den energia aurkitzeko ariketak landuko ditugu).

Azkenik, bakoitzak sortutako pertsonaiak inprobisazioetarako eta testu txikien lanketarako erabiliko ditugu.

* **Mikel SARRIEGI**. Aktorea. Heziketa Berezikoko irakaslea. AETko (Arte Eszenikoen Tailerra) lehenengo promoziokoa. 7 urtetan antzerkiko eskolak ematen jarduna, azken 5 urtetan Zurriola Antzerki Eskolan.

* **KOPURU MUGATUA** *

Psikomotrizitatea lehen haurtzaroan

Azken urteotan psikomotrizitateak izan duen zabalkundea nabarmena izan da gurean. Haur Hezkuntzaren erronketako bat haur garapenari laguntzea da eta hori berori da esku-hartze psikomotorearen helburua. Are gehiago lehen haurtzaroan. Ondorioz, psikomotrizitateak dituen dimentsio nagusi biak landuko ditugu: lehenik, ebolutiboa, haurraren garapen fisikoa, emozionala, kognitiboa eta pertsonala; eta gero didaktikoa, adinaren arabera psikomotrizitatea nola gauzatzaren joan. Amaitzeko, lehen haurtzaroaren amaieraren lorpen psikomotore nagusia den jausteari buruz hausnarketa egiteko parada izango dugu.

Norentzat

Lehen haurtzaroko profesionalentzat, ikasleentzat eta interesa dutenentzat.

Helburuak

- 0-3 bitarteko garapena menderatzea.
- Zeregin psikomotorearen gakoak norbereganatzea.
- Izaera profesionala sendotzea.

Uztailak 4, asteartea

Garapen psikomotorea lehen haurtzaroan (0-3 urte):

- Garapena, haziera, heltzea eta ikastea.
- Erreflexuetatik borondatezko jardueretara.
- Oinez hastea eta eskuaren meneramena.
- Emozioak eta giza harremanak.
- Hizkuntza eta pentsamendua.
- Lehen haurtzaroaren funtzioa.

Uztailak 5, asteazkena

Esku-hartze psikomotorearen gakoak:

- Psikomotrizitate gelaren antolaketa: heltze ibilbide bat.
- Psikomotrizitatean aritutakoaren jarrerak: entzumen enpatikoa, legearen ikurra eta lagun sinbolikoa izatea.
- Psikomotrizitate saioen denbora eta espazioaren antolaketa eta ikasturtean zeharreko bilakaera.

Uztailak 6, osteguna

Bertikaltasuna eta bere kontrolaren garrantzia:

- Borondatezko jarduera horizontaletik bertikaltasunerako bilakaera.
- Jaustearren lehenengo saioak eta "etxea" edo "ohea"ren eskakizuna.
- Jaustea eta irudikapenaren bilakaera.
- Jaustearren inguruko hainbat kontu.

Metodologia

Ikasleen aurretiko ideietatik eta eskarmentutik abiatuko gara. Ikus-entzunezko materiala, talde handian edo txikian egindako hausnarketak eta aurkezpen magistrala tartekatuko dira.

* **Elena HERRAN.** Maistra, Psikomotrizitatean espezialista eta Psikologian doktorea.

Haur txikiaren behaketa psikomotrizitate praktikaren ikuspegitik

Uztailak 4, 5 eta 6
9:00-14:00

Oso praktikoa. Haurrak egiten duena ikusi eta ulertu.

Norentzat

0-6 urteko haurrekin lan egiten dutenentzat.

Edukia

Psikomotrizisten formazioa hiru ardatzetan datza: praktikoa, teorikoa eta pertsonala. Formazio praktikoarean bidez psikomotrizitate saioetan parte hartzeaz jabetzen gara; teorikoaren bidez haurren produkzioak ulertzen ditugu; eta pertsonalaren bidez haurren produkzioen aurrean geure burua kokatzen dugu.

Ikastaro honetan formazio pertsonalari ekingo diogu batez ere, beste bi ardatz ahaztu gabe. Haur txikien mundura eta bibentzietara hurbilduko gara, norberaren esperientzien bitartez: autobehaketatik haur txikiaren behaketara iritsiko gara (enpatian oinarritutako behaketa).

Gimnasioko lana izango da. Proposamen irekien bitartez mugimendua, jolasa eta harremanen plazera biziko ditugu, eta hortik abiatuz, haurren produkzioari eta psikomotrizitate teoriari ekingo diegu.

Beharrezkoa

Arropa eroso (txandala...), zakua edo manta txiki bat eta zapi bat ekarri behar dira.

* **Rikardo ACEBO eta Alvaro BEÑARAN.** Psikomotrizistak eta Bergarako Psikomotrizitate Eskolako irakasleak.

* *KOPURU MUGATUA* *

Jolas kooperatiboak

Uztailak 4, 5 eta 6
9:00-14:00

Haurrengan jarrera gizatiarra, garapen emozionala eta sormena sustatzeko jolasen programak

Norentzat

Haur Eskoletako, Lehen Hezkuntzako eta Soinetako irakasleentzat.
Psikologo, pedagogo eta psikopedagogoentzat.
Haur eta Lehen Hezkuntzako orientatzaileentzat.

Helburuak

- Jolasak eta elkarrekintza kooperatiboak haurren garapen integralean duten eragin garrantzitsuari buruzko gogoeta egitea.
- Haur Eskolako eta Lehen Hezkuntzako haurrekin burutu daitezkeen hezkuntza programa ludikoak ezagutzea. Programek lankidetzeta, laguntza, kooperazioa eta sormen jolasak biltzen dituzte, jarrera gizatiarra, garapen emozionala eta haur sormena sustatzeko helburuarekin.
- Programen ekintzak esperimentatzea jolasaren egiturazko analisiaren eredu landuz.

Metodologia

Teoriko-praktikoa izango da, saio bakoitzean hainbat ekintza burutuz.

- Programaren oinarriko teoria, ezaugarriak, taldean ezartzeko prozedura eta ebaluaziorako metodologiak argitzeko azalpen teorikoak emango dira.
- Bideoan grabatutako eskola talde batzuen esperientzia ludikoak, kooperatiboak eta sormenezkoak ikusiko ditugu.
- Jolasen tailerren bidez egindako programa horien esperimentazioa.

Edukia

- **Esku-hartze programen oinarri teorikoa.**
- **Jolas kooperatiboen programen ezaugarriak.**
- **Taldean ezartzeko prozedura.**
- **Metodologia eta programak ebaluatzeko baliabideak.**
- **Esku-hartze programen baliozko azterketa empirikoak.**

* Maite GARAIGORDOBIL. EHUko Psikologia Fakultateko irakaslea.

* Ainhoa DURÁ. Haur psikologoa.

* *Ikastaroa euskaraz eta gaztelaniaz izango da.*

* *KOPURU MUGATUA* *

Birziklatuz sortu

Uztailak 4, 5 eta 6

9:00-14:00

Norentzat

Hezkuntza eta aisialdi arloko irakasle, begirale eta elkarteentzat eta gai honi buruzko interesa duten guztientzat.

Helburuak

- Haurtzarotik birziklaia modu praktikoan landuz, inguruneaz gehiago jabetzea.
- Gaur egun bizi dugun “erosi eta bota” kultura kontsumatzaile honetaz hausnartzea.
- Botatzen ditugun objektuei erabilera berri bat emanez, bere balioaz ohartzea.
- Birziklatzean diseinu berriak sortu eta sormen trebetasuna sustatzea.
- Birziklatzean sortzen diren arazo tekniko zein estetikoiei aurre eginez, plastika “kontzeptua” sakontzea.
- Zabor artean, esperimentazio eta jolasen bidez irudimena lantzea.

Edukiak

Bolumena landu:

- Maskarak.
- Txotxongiloak.
- Pertsonaiak.
- Objektuak (lanparak, mugikorak, markoak...).

Metodologia

- Ikastaroa **erabat praktikoa** izango da. Modu horretara, sortzen ari garenaren arabera, materialen baliabide plastikoaz ohartuko gara eta hainbat teknika ikusiko ditugu.
- Esperimentazioa izango da ikastaroaren oinarria.
- Haurrek egindako zenbait lanen irudiak ikusi eta gure esperientziak kontatuko ditugu.

Erabiliko den materiala

Zaborretara botatzen ditugun...

- egunkari zaharrak
- opari paperak
- plastikozko poltsak
- kartoaiak: kaxak, komuneko paperarena...
- plastikozko zenbait ontzi: lixiba, xanpu, jogurt...
- latak, txapak
- kortxoak
- arropa zaharrak
- sokak

***Amaia ZINKUNEGI**. Arte Ederretan lizentziatua.

***Ines GEREKA**. Biologian lizentziatua.

Musikaren esku-hartzea Hezkuntza Berezian

Uztailak 4, 5 eta 6
9:00-14:00

Ikastaro honetan, lortu nahi dena zera da: Hezkuntza Berezian esku-hartze musikaren ikuspegi orokorra eta objektiboa eskaintzea. Horretarako, hainbat lurraldetako hezkuntza premia bereziak dituzten pertsonengan txertatutako metodologiak hartuko dira kontuan.

Ondoren, hiru testuinguru aztertu nahi ditugu, beraien ezaugarriak desberdinduz: ezaugarri pedagogikoa, didaktikoa eta kokapen fisikoa. Horrela, lehenik eta behin, eskolan aplikatzen diren errekurtso musikalen proposamenak aztertuko dira. Horretarako, Euskal Herriko eta Espainiako eskoletako adin desberdinetako ikasleen musika saioak erakutsiko dira.

Bestalde, musika eskoletan hamar urtetan izandako esperientzia aztertuko da. Bertan, Down sindromea, buru atzerapena, garun paralisia eta autismoa duten pertsonen garapena aztertuko da, alderdi hauek zehaztuz: entzumena, psikolinguistika, tonuen bereizketa, erritmoa eta instrumentu jotzeko gaitasunak.

Azkenik, beste lurralde batzuetako esperientzia anitzak testuinguru eta egoera konkretu batzuetan aztertzeke aukera izango dugu.

Norentzat

Hezkuntza Bereziko ikasle eta irakasleentzat, musikako ikasle eta irakasleentzat eta musika eskolako irakasleentzat.

Edukiak

- Egungo egoera ezagutzea eta aztertzea: esperientziak, ikerketak...
- Munduan eskaintzen ari diren proposamen metodologikoak ezagutzea.
- Esku-hartzearen helburuak finkatzea: orokorrak eta musikalak.
- Musika esku-hartzearen ezaugarriak, baldintzak eta perspektibak identifikatzea.
- Irakasleen eta ikasleen gaitasunen inguruan eztabaidatzea.
- Musikaren eta beste arloen arteko loturak aurkitu eta aztertzea:
 - o Arlo psikolinguistikoa
 - o Entzumen garapena
 - o Soinuaren ezaugarriak, tonuen eta erritmoen bereizketa
 - o Motrizitate fina eta interpretazioa: instrumentu bat jotzeko

Metodologia

Erabiliko dugun metodologia praktikoa izango da. Edukiak eta proposamenak eskaintzeko bideoa erabiliko dugu euskarri nagusi moduan. Horregatik, behaketaren prestakuntza, eta gaur egunean gauzatzen ari diren hainbat esperientzien berri azaltzeko eta aztertzeke aukera izango dugu. Bestalde, eztabaida, oharpen eta gogoeta-jolas dinamika bultzatu nahi dugu, beraz, era aktiboan oinarritutako saioak izango dira.

* **Jose Ramon VITORIA.** Arrasate Musikal musika eskolako irakaslea. Mondragon Unibertsitateko HUHEZI Fakultateko irakaslea.

Musikoterapia

Musikadunak, musikazaleak eta musikagileak garenontzat

Uztailak 4, 5 eta 6

9:00-14:00

Pilulak baino CD sendagarri bat erostean ote datza kontu hau? Edo agian elkarrekin soinu egiterakoan sortzen den erresonantzia emozionala ote dugu botika berria? Erantzuna, maisu-andereño, musikari edo azken melodia eranskorren txistuzale sutsu hori, erantzuna –Bob Dylan-ek zioskunez- haizeak daroa.

Baina **haizeen orraziatik** ez oso urrun, ikastaro praktiko honetan, hain zuzen ere, abagune aparta izango duzu gure soinuak komunikatu egiten duela konturatzeko: ea, jakingo al zenuke zure giltzak soinuak soilik begiak itxita eza gutzen? Eta atea nola itxi duen eta bere urratsen arabera, nor sartu berri den etxean? Era berean, soinu-giro hutsez antzemango al zenituzke lekuak, egoerak, pertsonak...?

Musikoterapiak dioskunez, **hizkuntza emozionala dugu musika, hots, gure psikismoaren partitura.**

Eta partituraz ari garelarik, honatx ikastaroaren **gps**-a:

Bat-batekotasuna landuz

- Sormen soinu magmak: *aulkiz, kaxez, ezarriz, musika tresnez...*
- Sormen oihartzunak.
- Sormen melodiak: *plakaz eta kanikaz, txirulaz, txistuz...*

Entzumena landuz

- Entzumen kinetikoak: *tai-txia, tangoa, baltsa, rocka...*
- Entzumen tonikoa: *besarkaterapia, masaje musikalak...*
- Entzumen bibroakustikoa: *giza txalaparta, dutxa fonikoak, akorde besarkadak...*
- Entzumen akustikoa: *hots paisaiak, bidai musikalak, bereizketa tinbriko eta tonalak...*

Erritmoa landuz

- Gorputz perkusioa: *matematika polirritmikoa, desfaseak, elipsiak...*
- Zapatarritmia *mayumana*.
- Mahairritmiatik danborretara.

Ahotsa landuz

- Arnasketa-proiektzio teknikak.
- Fonazio-entonazio teknikak.
- Jolas prosodikoak: *izen amildegia, puxikaz...*

Partitura landuz

- Drama partiturak: *filmetako soinu bandak*.
- Ikono partiturak: *somatogramak, collagefonoak*.
- Notazio partiturak: *ostinatoak mekano eran, erritmogramak mila tinbrez*.
- Pentagrama lurrean, horman, velcroz eta velledan.
- Melodia eta harmonia *Boombackers* tutuz.

* Aitor ZENARRUZABEITIA. Musika irakaslea. Logopeda, musikoterapeuta, psikomotrizista eta psikopedagogo.

Biodantza

Uztailak 4, 5 eta 6

9:00-14:00

Orain dela hogeita hamar urte sortu zen Biodantza Hego Amerikan. Gaur egun oso ezaguna da munduan zehar. Eta geure lurraldean ezagutzera eman zen duela hamabost urte.

Musika, mugimendua eta bizipen integratzaileez baliatuz, garapen pertsonalerako bide bat da biodantza. Geure berezko izatearekin konektatzeko lagungarri.

Helburua ez da dantza liluragarria lortzea. Beraz, garrantzia ez zaio ematen itxura eta formari. Kontzienteki mugitzen garenean eta sentipenarekin uztartzen dugunean integrazioa lortzen dugu geure buruarekin.

Edozeinek egin dezake biodantza. Ez dago dantzari trebea izan beharrik.

Alderantziz, gerta daiteke dantzarako zailtasunak izan eta inork baino hobeto barneratzea dantzaren bidez.

Gehienetan geure buruari bueltak ematen gabilta eta biziak eskuetatik ihes egiten digu. Burua iraganean eta geroan kokatzen da eta **BIZIA INSTANTE HONETAN GERTATZEN DA**. Hori gero eta gehiago dastatzea da gure erronka.

Saioak bi zati ditu: lehen zatia, aktiboagoa izango da; eta bigarrena, erlaxatua eta barnerakoiagoa.

* **Bixen ASTIASUINZARRA**. Irakaslea.

Dantza afrikarra

Uztailak 4, 5 eta 6
9:00-14:00

Gorputza mugituz, kultura afrikarrean murgildu

Perkusio eta dantza afrikarra, aintzinean sortutako “anai-arrebak”, oraindik ere bixi-bixi dirauten ohitura zaharrak dira.

Gaur egun kulturaren parte garrantzitsu bat diren musika eta dantza oso era tradizional eta herrikoian mantendu dira, urteetan zehar eman den ahozko trasmisioari esker.

Ikastaro honetan asko dantzatzeaz gain, Afrika mendebaldeko musika eta ohiturak ezagutuko ditugu.

Helburuak

- Afrika mendebaldeko dantza eta perkusioarekin kontaktua izatea, bien arteko jolasa sentitzea eta komunikazio modu gisa ulertzea (deiak, dinamika aldaketak, erritmoaren intentsifikazioa...).
- Dantzaren bitartez norberak bere gorputzarekin bat egitea: koordinazioa, disoziazioa, erresistentzia eta indarra lantzea.
- Pausoak barneratu eta askatasun osoz dantzatzerara heltzea (aktibitate mentala alde batera uzten saiatuz).
- Gure gorputzaz gozatuz afrikar ohiturak ezagutzea.

Metodologia

Teoria: Afrikan jaso dugun dokumentazioarekin (bideoak...) elkarrizketak sortuko ditugu.

Praktika: ZUZENKO MUSIKAREKIN dantza egingo dugu:

- Beroketa.
- Pausoak banaka ikasi.
- Luzaketak/erlajazioa.

* Ainhoa CARRERA. Dantza irakaslea.

* Aintzira GOROSABEL. Perkusio irakaslea.

OHARRA: *arropa erosoak ekarri.*

Haurrentzako masajea

Uztailak 4, 5 eta 6
9:00-14:00

Ukitu - sentitu - kokatu

Laztanduak izan, sehaskan kulunkatuak izan, ukituak izan, masajea jaso; horiek guztiak haur txikien elikagai dira.

Haurra inguratzen duen giroak erabateko eragina izango du bere garunaren garapenean.

Gaur egun badakigu, jakin ere, jaioberria ez dela izaki pasiboa, eta haurraren gaitasunak lo egitearen eta jatearen mugak gainditzen dituela. Jaiotze-unetik beretik, baita lehenagotik ere, ezin susmatuzko gaitasunak erakusten ditu.

Jaioberriaren larruazal-sentimena ezohikoa da. Heldu batek jasotzen dituen sentsazioak jaso ditzake, eta hotz-beroak, goxotasuna eta gogortasuna, leuntasuna eta laztasuna, itsaskorra eta irristakorra dena bereiz ditzake, baita presioaren xamurtasuna ere.

Haur baten ukimen sentsazioaren suspergarririk hoberena larruazalaz elkar ukitzea da. Amak haurra, bere bularraren kontra jarrita, laztantzen duenean, berehala etorriko zaio haurrari lasaitasuna.

Haur bat laztandu, edo masajea emango badiogu, eskuaren presioa zenbatekoa izan behar den ikasi behar dugu. Laztan eztegiek jaioberria asper dezakete. Haurrek laztan leun baina energetikoak nahiago dituzte.

Norentzat

Haur Hezkuntzako irakasleentzat, gurasoentzat eta haur txikiekin dabilzanentzat.

Edukia

- Masajea nola eman, zergatik eta zertarako.
- Masajea ukipen premiak asetzeko lagungarri.
- Masajeak haurraren osasunari eta garapen fisikori nahiz emozionalari zer onura ekarriko dizkien aztertuko dugu.
- Autoerrealizaziora emandako jarraibideak aztertuko ditugu.
- Familia-ekosistema, oinarriko prebentzioa, gorputzaren eskema, eta gorputz-kontrola aztertuko ditugu; hau da, psikomotrizitatearen oinarriak.
- Ukitzea, sentitzea eta emaitza kokatzea landuko ditugu: ukitu + sentitu = kokatu

Metodologia

Teoriko-praktikoa izango da.

* Ramon MAUDUIT. Psikologoa eta prebentzioan aditua.

* *KOPURU MUGATUA* *

Miramongo Zientzia-Museoaren bisita: gelako lanaren osagarri

Norentzat

DBHko eta Batxilergoko zientzia irakasleentzat.

Helburua

Zientziaren Kutxaespazioak irakasleak zientziaren irakaskuntzan zertan lagun ditzakeen erakustea, gelan ikusitako lege eta teoriak egiaztatu, aplikatu eta sakontzearren. Hori lortzeko, irakasleek ikasleekin egingo duten bisitaldia gidatzeko materialak aurkeztea.

EGITARAUA

Uztailak 4, asteartea

Bisitaldia antolatzeko gida didaktikoak aurkeztuko dira: zientzien irakaskuntzaren ikuspegi eraikitzailetik abiatuz egindakoak dira, curriculumarekin lotuta daude eta bisitaldiaren izaera akademiko eta ludikoaren arteko oreka bilatzen dute. Ondoren taldeka antolatuko gara, bisitaldia egin behar duten ikasleak izango bagina bezala, eta bisita prestatuko dugu areto bakoitzeko modulu bat hartuz.

Uztailak 5, asteazkena

Talde bakoitzak aukeratutako moduluak landuko ditu Museoan, bezperan egindako hipotesiak egiaztatuz eta zenbait neurketa eta behaketa kualitatibo eginez. Ondoren, moduluetan planteatutako problemak azaltzeko, printzipio fisikoak egiaztatzeko edo legeak ondorioztatzeko lana egingo da.

Uztailak 6, osteguna

Talde bakoitzak landutako moduluak beste taldeei erakutsiko dizkie; landu gabe geratu diren beste zenbait modulu emaleek azalduko dituzte, bisitaren ikuspegi orokorra izateko.

- * Mikel ETXANIZ. Pasaia-Lezo lizeoko irakaslea
- * Emiliano MUJIKA. Pasaia-Lezo lizeoko irakaslea

Arratsaldeetako saioak

Arratsaldeko 16:00etan
Pedagogia Fakultatean

Saio libreak.
Nahi duten guztientzat irekiak.

Uztailak 4, asteartea

Anorexia eta bulimia. Zer egin dezakegu hezitzaileok?
Elikadura portaeraren arazoak.

- * Agurne JULDAIN. Psikologoa.
- * Maddi ARRAZOLA. Psikologoa eta elikaduran diplomatua.

Uztailak 5, asteazkena

Antzerkia eskolan

“Niko eta Periko” antzezlanaren aurkez-
tuko dute eta ondoren elkarriketa
egongo da. Zer egin, nola, zertarako...
antzerkia eskolan?

- * Joserra FATXADO. Aktorea.
- * Dabid ERRASTI. Aktorea.

**Zehazteke dauden beste propo-
samen batzuk ere izango dira.**

*Oharra: Norbaitek proposamenik edo aurkez-
penik egin nahiko balu, jarri gurekin harrema-
netan eta gauzatzen ahaleginduko gara.*



m a t r i k u l a t x a r t e l a

Izena eta bi abizenak.....

Etxeko helbidea.....

P.K..... Herria..... Herrialdea.....

E-posta..... Zure tel

Irakaslea Maila Ikastetxea.....

Ikaslea Ikasketa?.....

Bestelakoa

Zein ikastarotan hartuko duzu parte?

Gutxienez 1 eta gehienez 3 ikastaro aukera zenitzake (batean lekurik ez balego, bestean sartzeko zuzenean). Markatu lehentasunak 1, 2 eta 3 zenbakiekin.

- | | |
|---|--|
| <input type="checkbox"/> 1.- Heziketa sortzailea | <input type="checkbox"/> 19.- Bideoa |
| <input type="checkbox"/> 2.- Ahozkotasuna | <input type="checkbox"/> 20.- Literaturatik zinemara |
| <input type="checkbox"/> 3.- Begirada islamari | <input type="checkbox"/> 21.- Idazketaren didaktikarantz |
| <input type="checkbox"/> 4.- Historia irakaskuntzan | <input type="checkbox"/> 22.- Ipuinak irakurri-kontatu |
| <input type="checkbox"/> 5.- Nola landu elkarbizitza | <input type="checkbox"/> 23.- Disgrafiaren tratamendua |
| <input type="checkbox"/> 6.- Familia eta eskola | <input type="checkbox"/> 24.- Chillida |
| <input type="checkbox"/> 7.- Ikas-estiloak eta ikas-estr. | <input type="checkbox"/> 25.- Antzerki Klown-a |
| <input type="checkbox"/> 8.- Dibortzioa eta eskola | <input type="checkbox"/> 26.- Antzerkia |
| <input type="checkbox"/> 9.- Harremanak gelan | <input type="checkbox"/> 27.- Psikomotrizitatea |
| <input type="checkbox"/> 10.- Adimen emozionala | <input type="checkbox"/> 28.- Psikomotrizitatea (gimnasioan) |
| <input type="checkbox"/> 11.- Coaching | <input type="checkbox"/> 29.- Jolas kooperatiboak |
| <input type="checkbox"/> 12.- Heriotza heziketan | <input type="checkbox"/> 30.- Birziklatuz sortu |
| <input type="checkbox"/> 13.- Ordenagailu gelara? | <input type="checkbox"/> 31.- Musika Hezkuntza Berezian |
| <input type="checkbox"/> 14.- Publisher | <input type="checkbox"/> 32.- Musikoterapia |
| <input type="checkbox"/> 15.- Photoshop | <input type="checkbox"/> 33.- Biodantza |
| <input type="checkbox"/> 16.- Linux | <input type="checkbox"/> 34.- Dantza afrikarra |
| <input type="checkbox"/> 17.- Neobook sakontzen | <input type="checkbox"/> 35.- Haurrentzako masajea |
| <input type="checkbox"/> 18.- Blogak irakaskuntzan | <input type="checkbox"/> 36.- Miramongo Zientzia-Museoa |

HARPIDETZAK
50 euro urtean

UDAKO TOPAKETAK
Matrikula arrunta
100 euro

Harpide bazara:

- Urtean 10 aldizkari
- Urtean 3 monografiko
- % 30eko beherapena gure liburuetan, CDetan, DVDetan, jardunaldietan...



Harpideek
50 euro

hik hasiko harpide izan nahi dut

Izena..... 1. deitura.....
2. deitura Zure tel.:.....
Etxeko helbidea P. K.....
Herria.....Herrialdea.....
E-posta.....
Ikastetxea.....
IFZ-NAN.....

Aurrezki Kutxa edo Bankua

Entitatea Sukurtsala K.D. Zenbakia

Sinadura

m a t r i k u l a

Matrikula epea: **maiatzaren 26a arte.**

Prezioak

- Ikastaroen prezioa 100 euro
- **hik hasi**ko norbanako harpideak eta langabetuak **50 euro**
- Langabetu diren harpideek..... 30 euro

* Oharra: langabetu agiriaren kopia aurkeztu beharko da.

Ordainketa:

- Zure matrikula **onartua izan dadin, transferentzia egin beharra duzu** kontu zenbaki honetara:

EUSKADIKO KUTXA 3035 - 0036 - 15 - 0360062005

- Transferentzia egiterakoan, **jarri zure izena eta bi abizenak.**
- Ordainagiririk ez bidali.
- Ikastaroan lekurik ez balego edo ikastaroa egingo ez balitz, dirua itzuli egingo zaizu.

Matrikula txartela postaz, faxez edota www.hikhasi.com web orriaren bidez bidal daiteke.

hik hasi. Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1.
20018. DONOSTIA. Gipuzkoa

FAX: 943 372 154

E-posta: hikhasi@hikhasi.com

www.hikhasi.com

Adi! ekainaren 5ean jasoko duzu **e-mail bat** (e-mailik ez baduzu, posta arruntez), esanaz zein ikastarotan izan zaren onartua, eta gogoraraziz lekua, ordua, egitaraua eta bestelako oharra.


Edozein argibidetarako: 943 371 408 telefonora deitu edo
hikhasi@hikhasi.com e-postara idatzi.

Oharra: antolatzaileen esku gelditzen da programa honi behar diren aldaketak egitea.

Antolatzaileak



Babesleak



Donostiako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentua

Laguntzaileak

